

Lan bila

Entzungai motz bat duzue. Entzun ondoren, esan **EGIA** ala **GEZURRA** diren ideia hauek.

- Banaketa Donostian izango da.

EGIA GEZURRA

- Telefonariak egunkarian iragarki bat irakurri du.

EGIA GEZURRA

- Manuk gida-baimena eta eskarmentua du.

EGIA GEZURRA

- Manuk ez du furgonetarik.

EGIA GEZURRA

- Ez dute elkarrizketa egiteko eguna adostu.

EGIA GEZURRA

- Aldez aurretik elkarrizketa bat egitea komeni da.

EGIA GEZURRA

- Lantegian banatzaile bat behar dute.

EGIA GEZURRA

- Noizean behin Madrilera joan beharko du.

EGIA GEZURRA

Transkripzioa

Andrea: *Landa* tailerrak, esan.

Gizona: Bai, egunon.

A: Kaixo!

G: Begira, iragarki bat ikusi dut egunkarian gaur goizean eta trasportista bat behar duzuela esaten da.

A: Bai, halaxe da. Lanpostu bat, eh, furgoneta batekin banatzaile lanerako lanpostu bat da, bai.

G: Ba, nik furgoneta bat dut eta zer nolako lana izango litzateke?

A: Bueno, ba, berez, banatzaile-lanak egiteko, hemen gipuzkoa mailan, baina baita ere noizean behin Madridera eta, eta hori autonomo bat eskatzen da eta, baina hala eta guztiz ere elkarrizketa baterako edo geratuko ginateke..., eh, datu gehiago eta zehazteko.

G: bai. Baldintza berezirik edo, edade aldetik, adina aldetik edo zer...?

A: Ez. Dena dela, guzti hori elkarrizketa horretan zehaztuko genuke.

G: Bale, bale, eta

A: Prest egongo zinateke?

G: Bai, bai. Ni bisita bat egitera joango nintzateke. Zer ordutan iruditzen zaizu edo?

A: Begira, hemen pertsonal-arduradunarekin izango zenuke elkarrizketa eta bera bihar goizeko bederatzietatik hamabiak bitartean hemen izango da. Etorriko zinateke?

G: Oso ondo, bai, bai.

A: Zure datuak emango dizkidazu? Izen-abizenak.

G: Bai. Manu Narbaez Elozegi.

A: Bai, eta nongoa zara?

G: Ni Donostikoa naiz.

A: Eta ze adin duzu?

G: 44 urte.

A: Eta furgoneta baduzu, ezta?

G: Furgoneta badut bai, eta autonomo bezala aritzen naiz lanean.

A: Hori da. Eta esperientzia ere baduzu.

G: Bai, bada hamar-hamabost urte karneta atera nuela eta ez da problemarik.

A: Oso ondo. Ba, bihar hitz egingo dugu orduan, eh?

G: Bale, bale. Hor azalduko naiz, ba.

A: Bihar arte.

G: Adio.

Erantzunak.

Gezurra / Gezurra / Egia / Gezurra / Gezurra / Egia / Egia / Egia